

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINTZA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA (EAE)

HASIERAKO OHARRA. 2022ko 40. astean arnas infekzio akutua (AIA) zaintzeko denboraldi berri bati hasiera eman zitzaion. Datozen asteetan aldaketak eta berritasunak txertatuko dira txosten honetan. Adibidez, hemendik aurrera, AIAREN tasak EAEko Lehen Mailako Arretako kontsulta guztietatik lortutako datuekin kalkulatu dira, eta ez soilik orain arte bezala jagoletatik eratorritakoekin.

48. astea (2022/11/28-2022/12/04)

2022-2023 denboraldia


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 611,75 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (585,31/100.000 aurreko astean).
- Laborategira bidalitako 99 lagin jagoleen % 80,8 baieztatu da, 25 ABS, 18 SARS-Cov-2 eta 9 gripe birus antzeman direlarik. 11 errinobirus eta 11 metapneumobirus ere detektatu dira.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 17,55 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (16,28/100.000 aurreko astean).
- Sei astez behera egin ondoren, gora egin du EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemari gripe-birusaren detekzio kopuruak, baita ABSaren detekzioek ere.

AIAren jagoletza Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Lehen Mailako Arreta-sarean hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 611,75 kasukoa izan da (585,31/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 546,05/100.000 izan da Araban, 591,46/100.000 Bizkaian eta 674,24/100.000 Gipuzkoan.

AIAren intzidentzia-tasa lurralde historikoaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2022-2023, EAE



Adin-taldearen arabera, AIA tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da, 3355,27 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 975,96 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute adin-talde guztietan, 5 urtetik beherakoetan izan ezik.

**AIAren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen Mailako Arretako sarea. 2022-2023, EAE**



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute ESI guztietan, Barakaldo-Sestao, Bilbo-Basurto eta Debagoiena ESietan izan ezik. Tasa handiena Goierri-Urola Garaia ESIan izan da berriro ere, eta txikiena Barakaldo-Sestaokoan.


AIAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIn eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2022-2023, EAE

ESI	Tasa 48. astea	Tasa 47. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Araba ESI	603,05	583,68	1,03 (0,97-1,11)
Arabar Errioxa ESI	769,43	649,74	1,18 (0,87-1,61)
Barakaldo-Sestao ESI	538,91	542,09	0,99 (0,89-1,11)
ESI Barrualde-Galdakao ESI	609,35	575,37	1,06 (0,99-1,13)
OSI Bilbao-Basurto ESI	558,73	578,40	0,97 (0,91-1,03)
Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta ESI	675,17	664,04	1,02 (0,93-1,11)
Uribe ESI	542,91	515,40	1,05 (0,97-1,14)
Bidasoa ESI	562,32	501,70	1,12 (0,98-1,28)
Debabarrena ESI	641,67	597,32	1,07 (0,94-1,22)
Debagoiena ESI	530,12	534,79	0,99 (0,85-1,15)
Donostialdea ESI	589,50	564,97	1,04 (0,98-1,11)
Goierri-Urola Garaia ESI	966,10	831,95	1,16 (1,06-1,28)
Tolosaldea ESI	836,86	674,14	1,24 (1,09-1,41)

Gripe-sindromearen tasa 19,56 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (18,74/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasek pixka bat gora egin dute Araba eta Gipuzkoan, eta berdin mantendu da Bizkaian.

Bronkiolitisaren tasa (2 urtetik beherakoetan) 1273,36 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (1250,08/100.000 aurreko astean). Tasek gora egin dute Araba eta Gipuzkoako lurralde historikoetan, bereziki Araban, non azken asteetan iguera azkar bat eman den, eta pixka bat behera Bizkaian.


**Tasa lurralde historikoaren eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen Mailako Arretako sarea. 2022-2023, EAE**



Zaintza jagolea

Aste honetan, AIArako erreferentziako laborategian 99 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 80,8 baieztatu da (denboraldiko positibotasun altuena), 25 ABS, 18 SARS-Cov-2 eta 9 gripe birus (7 AH3 azpimotako, AH1pdm09 bat eta B motako bat) antzeman direlarik. 11 metapneumobirus, 11 errinobirus eta lagin berean 2 birus identifikatutako 8 koinfekzio ere detektatu dira.

**AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua,
aste epidemiologikoaren arabera. 2022-2023, EAE**



Aste honetan erregistraturiko positibotasun altuena ABSrena (% 20,2) izan da berriro ere, azken bost asteetan gorantz doana. Gripearean positibotasuna lagin jagoleetan % 10aren azpitik dago oraindik (% 9,1), nahiz eta aurreko astearekin (% 7,9) alderatuta berriro igo den, eta SARS-CoV-2aren positibotasuna % 18,2koa izan da (% 15,7 aurreko astean). % 10etik gorako positibotasuna erregistratu da errinobirusetan eta metapneumobirusetan ere (% 11,1).

Positibotasunaren ehunekoa laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2022-2023, EAE


	48. astea		47. astea		2022-2023 hasieratik	
	Detek.	Positib (%)	Detek.	Positib (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	9	9,1	7	7,9	154	22,3
SARS-CoV-2	18	18,2	14	15,7	100	14,5
ABS	25	25,3	18	20,2	80	11,6
Metaneumobirus	11	11,1	5	5,6	29	4,2
Parainfluenza	4	4,0	1	1,1	33	4,8
Adenobirus	5	5,1	3	3,4	47	6,8
Errinobirus	11	11,1	12	13,5	103	14,9
Urtaroko CoV	5	5,1	2	2,2	24	3,5

AIA larriaren (AIAL) jagoletza Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak AIA diagnostiko-kodea duten eta ospitaleratzea behar duten kasuak dira. AIAL tasa Osakidetzako ospitale-sarean 17,55 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (16,28/100.000 aurreko astean), 15,76/100.000 emakumeetan eta 19,45/100.000 gizonetan.

AIAL tasa sexuaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2022-2023, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da, 122,43 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 64 urtetik gorakoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 42,85 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute adin-talde guztietan, 15-44 urteko adin-taldean izan ezik. Badirudi 0-4 urteko adin-taldearen igoeran dezelerazio txiki bat eman dela.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera Osakidetzako ospitale-sarea. 2022-2023, EAE




Zaintza biologiko ez jagolea

Sei astetako jaitsieraren ondoren, EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman gripe-birusaren detekzio kopuruak gora egin du. ABS detekzioek gora egiten jarraitzen dute.

Aste honetan detektatutako 134 gripe-birusetatik, 79 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, 49 A(H3), 5 A(H1)pdm09 eta bat B motakoa. 2022/40 astetik 1846 detekzio erregistratu dira, 1831 (% 99,2) A motakoak eta 15 (% 0,8) B motakoak. Azpitipatutako A motako 546 birusetatik, 526 (% 96,3) A(H3) eta 20 (% 3,7) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko Influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2022-2023, EAE




COVID-19ren zaintza espezifikoa

60 urte edo gehiagoko populazioan, 48. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 136,07 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (127,72/100.000 aurreko astean), 134,23 gizonetan eta 137,51 emakumeetan (Iturria: ABG).

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, txosten honen egunean, SARS-CoV-2aren aldaeratarako PCR proba espezifikoak lagin positiboan % 28ari egin zaizkie. Guztiak Omikron aldaerakoak izan dira, eta horietatik % 95 BA.5 azpialdaerakoak, % 4 BA.2 eta beste % 1a BA.4.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera (OBIEE), 48. astean SARS-CoV-2rako IAPD positiboa zuten 236 paziente ospitaleratu ziren EAEn (192 aurreko astean), 112 emakume eta 124 gizon. Ospitaleratutako pertsonen % 77 60 urtetik gorakoa zen.



OBIEEtik ateratako datuen arabera, 48. astean COVID-19aren 48 kasu berri erregistratu dira EAeko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean. Aurtengo 30. astetik (abuztuaren 1etik 7ra) ez da balio hau gainditu. Hala ere, kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua 23koa izan da, aurreko astean antzeko balioa.

AIAREN aktibitatearen inguruko informazioa zehatzagoa ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB)

2022ko abenduaren 7an

Zainketa Epidemiologikoa Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza